

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

192/2020 Diputatu Nagusiaren Foru Dekretua, uztailaren 3koa. Onespena ematea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen 2020rako deialdiari

Ekainaren 26ko Foru Gobernu Kontseiluaren 30/2018 Foru Dekretuaren bidez (ekainaren 9ko Kontseiluaren 19/2020 Foru Dekretuaren bidez aldatua), mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi ziren.

Laguntza horiek izapidetzeko prozeduraren barruan, aipatutako 30/2018 Dekretuaren eta bere aldaketaren 7. artikulua xedatzen du urtero deialdi bat onetsiko dela. Deialdian, laguntza lerro bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea adieraziko da, eta laguntzak emateko erabiliko diren kredituak zehaztuko dira.

Hortaz, mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntza lerroari jarraipena eman behar zaionez, proposatzen da 2020rako deialdia onestea eta hari aurre egiteko behar besteko kreditua gordetzea.

Aginduzko txostenak aztertu dira. Horregatik, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. - Onespena ematea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzaren 2020ko deialdiari, zehaztasun hauen arabera:

– Epea eta lekua: laguntza eskaerak aurkezteko epea ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2020ko uztailaren 31ra izango da, egun biak barne, eta Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan egingo da (Lapuebla de Labarca errepidea, zk.g. Guardia), betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua.

– Kreditu erreserba: 197.487,36 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako gastuen aurrekontuko "Mahasti zaharren mantentze plana" izeneko 40.1.04.44.00.770.00.01.5 partidaren kontura.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2020ko deialdi honetan 4.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko.

Bigarrena. - Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. - Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo

argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE